El cáncer de Marta vuelve con fuerza. Cansada de su suerte, decide tirar la toalla. Será entonces cuando tres historias acudirán a ella para, desde el humor más inesperado, ayudarla a reescribir su destino.

**Zalla Zine-Antzokia**
Goizeko saioa ikastetxeentzat / Sesión matinal para centros educativos

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 24 asteartea 21:30ean / Martes 24 de octubre, 21:30

**Emanaldiak institutoetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro



## AGUR ARTZAI

Julien Zubiete / Dokumentala
Euskal Herria / 2023 / 27 min
V.O. Euskera / SUBT. Castellano

info@selectedfilms.com

Gorbeia mendiko azken artzainetako batengana (Joserengana) jo du Julenek, amaitzear den bizimodu baten nondik norakoak jasotzera. Elkarrekin ematen duten denboran, iraganerantz zabaltzen dira ateak, atzean geratu den guztia erakusteko.

Julen se acerca a Jose, uno de los últimos pastores del monte Gorbea, queriendo retratar un modo de vida que se acaba. En el tiempo que ambos pasan juntos las puertas hacia el pasado se abren para observar lo que ha quedado atrás.

**Cineforum de Aulas de la Experiencia UPV/EHU. Bizkaia Aretoa-UPV/EHU - Sala Baroja**
Urriak 23 astelehena, 18:00etan / Lunes 23 de octubre, 18:00

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 24 asteartea, 21:30ean / Martes 24 de octubre, 21:30



## ALEGORÍA

Tino Fernández / Fikzioa
España / 2023 / 13 min
V.O. Castellano / SUBT. Inglés

info@selectedfilms.com

Prest daude hamar parte-hartzaile euren bizitzako lasterketarik garrantzitsuenari ekiteko. Kontua ez da irabaztea, helmugara iristea baizik.

Diez participantes, están a punto de empezar una carrera en la que lo más importante no es ganar, sino llegar, en la carrera de sus vidas.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 23 astelehena, 21:30ean / Lunes 23 de octubre, 21:30

**Emanaldiak institutoetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro




## AMALUR

Egoi Suso / Dokumentala
Nepal, Etiopía, India, Bangladesh, Senegal, Italia, Indonesia, Turquía, Venezuela, España, Cuba, Sri Lanka, Maldivas, Japón, Tailandia / 2023 / 41 min / Sin diálogos

egoisuso@gmail.com

Gizakion bilakaera eta naturarekin dugun harremana erakusten ditu dokumental honek, hasi antzinako garaietatik eta gaur egunera arte, non milaka lagun bizi diren hiriak baitira nagusi. Gizartean eta banaka nola jarduten garen aztertzen du, nola saiatzen garen errealitateari bizkarra ematen, desberdinkeria, kaosa, zentzurik gabeko aurrerapena eta Lurraren hondamen ezin azkarragoa nagusi dituen gure mundu honetan. Sentsazioz betetako dokumentala dugu, ikusleari inguruan duen munduari buruz gogoeta eginarazteko asmoa duena.

Documental que narra la evolución del humano y su relación con la naturaleza desde lo más ancestral hasta los tiempos más modernos donde imperan las grandes ciudades que albergan a miles de personas. Un análisis de cómo nos comportamos socialmente e individualmente donde buscamos evadirnos de la realidad para sobrevivir ante un mundo lleno de desigualdades y caos, un progreso sin sentido y un planeta que se consume a ritmo desenfrenado. Un documental de sensaciones que pretende que el espectador reflexione sobre el mundo que le rodea.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 23 astelehena, 21:30ean / Lunes 23 de octubre, 21:30

**Cines Florida Zinemak. Vitoria-Gasteiz**
Urriak 24 asteartea, 20:00etan / Martes 24 de octubre, 20:00



## AMUKA - EL DESPERTAR DEL PUEBLO CONGOLÉS

Antonio Spanò / Dokumentala
República Democrática del Congo, Bélgica / 2021 / 70 min
V.O. Francés, otros / SUBT. Castellano

spano.antonio@gmail.com

Munduko ia bi herritarretik bat elikatzeko gai da, berez, Kongoko Errepublika Demokratikoa. Alabaina, gosea pairatzen du sei kongoarretik batek, eta, bitik batek, desnutrizio larria. Biztanleen %70 nekazaritzatik bizi dira. Paradoxa horri aurre egiteko edo, kooperatibak sortzen dituzte nekazariek. Hango eguneroko bizimodua nolakoa den azaldu digute kongoar batzuek. Elkar ez dute ezagutzen, elkarrengandik ehunka kilometrora bizi dira, nekazaritzako sektore desberdinetan egiten dute lan...; hala eta guztiz ere, ozenki entzuten dira denen ahotsak dokumental kementsu, sentikor eta zintzo horretan.

La República Democrática del Congo podría alimentar a casi 1 de cada 2 habitantes de la Tierra. Sin embargo, una de cada seis personas congoleñas pasa hambre, una de cada dos sufre desnutrición aguda y el 70% de la población vive de la agricultura. Ante esta paradoja, el campesinado se reagrupa en cooperativas agrícolas. Unas cuantas personas nos comparten su vida cotidiana, la de todas aquellas a quienes representan. Aunque no se conozcan, vivan a miles de cientos de kilómetros unas de otras, participen en sectores agrícolas diferentes, sus voces resuenan en este documental poderoso, sensible y sincero.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 22 igandea, 17:00etan / Domingo 22 de octubre, 17:00




## BIGGER THAN US

Flore Vasseur / Dokumentala
Francia / 2021 / 96 min
V.O. Inglés / SUBT. Castellano

margot.lepeltier@institutfrancais.es

Bere herrialdea —Indonesia— hondatzen ari den plastikoen kutsaduraren aurka aritu da borrokatzen sei urtez Melati, 18 urteko gaztea. Harekin batera, mundua txukundu nahi duen belaunaldi berri bat ari da sortzen.

Durante 6 años, Melati, de 18 años, ha estado luchando contra la contaminación plástica que está asolando su país, Indonesia. Como ella, una generación está surgiendo para arreglar el mundo.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 20 ostirala, 19:00etan / Viernes 20 de octubre, 19:00



## BROKEN WINGS

Jorik Dozy, Sil van der Woerd / Dokumentala
Indonesia, Singapur, Emiratos Árabes, Holanda / 2023 / 7 min
V.O. Italiano / SUBT. Castellano

sil@studiobirthplace.com

Dokumental musikala da *Broken Wings* filma, Asiako hego-ekialdeko isileko hegazti-ehizaren berri lehenbizikoz azaltzen diguna. Hegazti tropikalek basotik kaiolara egiten duten bidaia kontatzen du filmak, nola ari diren azkar husten oihanak eta nola dauden desagertzeko zorian 1.500etik gora hegazti-espezie. Gezurra dirudi, baina apenas inork dakien hondamen horren berri.

*Broken Wings* es un documental musical que desvela la historia jamás contada de la caza furtiva de aves en el Sudeste Asiático. La película capta el viaje que hacen las aves tropicales del bosque a la jaula, revelando cómo se vacían los bosques a gran escala, amenazando de extinción a más de 1.500 especies de aves. Sin embargo, casi nadie lo sabe.

**Zirkodomoa. Barakaldo**
Urriak 7 larunbata, 20:00etan / Sábado 7 de octubre, 20:00

**Azkuna Zentroa Alhóndiga Bilbao**
Urriak 19 osteguna, 19:30ean / Jueves 19 de octubre, 19:30

**Zalla Zine-Antzokia**
Urriak 19 osteguna, 19:00etan / Jueves 19 de octubre, 19:00

**Torrebillela Aretoa. Mungia**
Urriak 20 ostirala, 19:30ean / Viernes 20 de octubre, 19:30

**Emanaldiak institutoetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro



## ERRO BI

Nagore Muriel Letamendia / Fikzioa
Euskal Herria / 12 min
V.O. Euskera / SUBT. Castellano

nagoremurielletamendia@gmail.com

Urtebete igaro da Ainhoa (22 urte) aitarik gabe geratu zela, hil egin baitzitzaion.Harrezkero, gurasoen baserrian bizi da, 47 urteko amarekin. Inguruan duen orok aita gogorarazten dionez, Ainhoak alde egin nahi du handik. Amak, aldiz, ondoan eduki nahi du alaba. Baserriko behi bat hil dela aitzakia hartuta, Ainhoari bertan eusten saiatzen da ama.

Ha pasado un año desde la muerte del padre de Ainhoa (22 años). Desde entonces vive con su madre (47 años) en el caserío donde vivían con su padre. Como todo el entorno le recuerda a su padre, Ainhoa querrá abandonar el lugar. La madre, sin embargo, querrá mantener a su hija con ella. Con la excusa de la muerte de una vaca del caserío, la madre tratará de evitar que Ainhoa se vaya de la ciudad.

**Arriola Antzokia. Elorrio**
Urriak 9 astelehena, 20:00etan / Lunes 9 de octubre, 20:00

**Zalla Zine-Antzokia**
Goizeko saioa ikastetxeentzat / Sesión matinal para centros educativos

**Cineforum de Aulas de la Experiencia UPV/EHU. Bizkaia Aretoa-UPV/EHU - Sala Baroja**
Urriak 23 astelehena, 18:00etan / Lunes 23 de octubre, 18:00

**Cines Florida Zinemak. Vitoria-Gasteiz**
Urriak 23 astelehena, 20:00etan / Lunes 23 de octubre, 20:00

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 24 asteartea, 21:30ean / Martes 24 de octubre, 21:30

**Emanaldiak institutoetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro



## ESCUTE: A TERRA FOI RASGADAS

Cassandra Mello, Fred Rahal / Dokumentala
Brasil / 2023 / 88 min
V.O. Portugués, otros / SUBT. Castellano

maurofred@gmail.com

Legez kanpoko meatzaritzaren txikizioak presionaturik bizi diren hiru herri indigenen bizimodua kontatzen digu filmak —yanomani, munduruku eta mẽbêngôkre herriena, hain zuzen ere—, eta haien pentsaerara hurbiltzen gaitu. Elkarrekin aliatu dira hiru herriok, euren lurraldea defendatzearren. Beraz, erresistentziari eta erresilientziari buruzko kontakizun bat dugu, herrion eremu fisiko eta subjektiboak zaintzeko sortutako batasun berri baten adierazle. Legez kontrako meatzaritzak eragiten duen suntsiketaren gaineko filma dugu, bai; baina, beste gai bat ere jorratzen digu: herri indigenen eta haiek bizi diren lurraldearen arteko bereizezintasuna.

A partir del universo de tres pueblos indígenas presionados por la destrucción causada por la minería ilegal, la película propone una aproximación al pensamiento de los Yanomami, Munduruku y Mẽbêngôkre, en la formación de una alianza histórica en defensa de sus territorios. Es, por lo tanto, una narrativa sobre resistencia y resiliencia, en la figura de una unión inédita que garantiza la preservación de sus territorios físicos y subjetivos. Más allá de la destrucción causada por la minería ilegal, esta es una película sobre la imposibilidad de separar la existencia indígena del territorio en el que viven.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 21 larunbata, 19:00etan / Sábado 21 de octubre, 19:00



## ESTRELLAS DEL DESIERTO

Katherina Harder Sacre / Fikzioa
Chile / 2023 / 19 min
V.O. Castellano / SUBT. Inglés

katherina@volcanicafilms.cl

Atacamako basamortuan —Txileren iparraldeko muturrean— dagoen herri bateko futbol-taldetxo bateko kide dira Antay (12 urte) eta haren lagun Pedro (12 urte) eta Ayelén (11 urte). Lehortea gogor ari da astintzen herria. Denborak aurrera eta egoerak okerrera egin duenez, familia batzuek herritik alde egitea erabaki dute. Arriskuan dago, horrenbestez, Antayren eta lagunen futbol-taldea. Ingurumenaren aurkako mehatxuari aurre egiteko protestak antolatzen dabil Antayren ama, herriko beste emakume batzuekin batera; mutila, berriz, ingurua betiko aldatu eta galduko duela ari da ohartzen.

Antay (12) tiene un pequeño equipo de futbol junto a sus amigos Pedro (12) y Ayelén (11) en un pueblo del extremo norte de Chile, en medio del Desierto de Atacama, el cual viene siendo golpeado fuertemente por la sequía. Con el paso del tiempo y el empeoramiento de la situación, algunas familias comenzarán a abandonar el pueblo, lo cual amenazará con desintegrar al equipo de Antay y sus amigos. Mientras su madre se organiza junto a otras mujeres del pueblo para protestar y resistir frente a la amenaza medioambiental, Antay deberá enfrentarse a la pérdida y la transformación de su entorno para siempre.

**Zirkodomoa. Barakaldo**
Urriak 7 larunbata, 20:00etan / Sábado 7 de octubre, 20:00

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 23 astelehena, 17:00etan / Lunes 23 de octubre, 17:00



## HAU ETXEA BADA

Nuria Casal / Dokumentala
Euskadi, España / 2022 / 26 min
V.O. Euskera, castellano / SUBT. Castellano parcial, euskera parcial

info@begiazinema.com

Ez da erraza bizitza duina zer den zehaztea. Bete beharreko baldintzetako bat —zalantzarik gabe— bizitzeko lekua bat izatea da; etxea, alegia. Baina, zerk egiten du toki bat bizitzeko modukoa, duina? Zerk bihurtzen du leku bat etxe? Bizitzeko leku lotsagarriak daude gure inguruan, gure hirian, gugandik oso hurbil…; hala ere, jendea bizi da toki horietan. Banketxe bateko kutxazaina, adibidez, aterpe bat da; baina, leku duina da? Etxe bat da? Bada gure artean kalean, harrera-etxeetan, hutsik dauden pabiloietan… bizi den zenbait jende. Haietako batzuengana jo dugu eta, ahal izan dugun neurrian, «bizi» diren lekuetara, euren bizipenen berri eman diezaguten. Zer da haientzat etxebizitza duin bat? Etxea, mundura irteteko denok behar dugun leku segurua.

Es difícil definir qué es una vida digna. Una de las condiciones es sin duda un techo, un hogar. ¿Qué convierte a un lugar en un sitio digno para vivir? ¿Qué convierte a un lugar en un hogar? A nuestro alrededor, en nuestra ciudad, a tres pasos de nuestro portal, existen lugares indignos en los que, sin embargo, viven personas. El cajero de un banco es un techo, pero ¿es un lugar digno? ¿Es un hogar? Entre nosotros seguimos encontrando personas que viven en la calle, en viviendas de acogida, en pabellones en desuso… Nos acercamos a ellas y, en la medida de lo posible, a esos espacios para que nos cuenten en primera persona sus vivencias. ¿Qué es para ellas una vivienda digna? Un hogar, ese lugar seguro desde el cual salir al mundo.

**Torrebillela Aretoa. Mungia**
Urriak 22 igandea, 19:30ean / Domingo 22 de octubre, 19:30

**Cineforum de Aulas de la Experiencia UPV/EHU. Bizkaia Aretoa-UPV/EHU - Sala Baroja**
Urriak 23 astelehena, 18:00etan / Lunes 23 de octubre, 18:00



## HORA PETROLERA

Emilio Braojos / Fikzioa
México / 2022 / 20 min
V.O. Castellano / SUBT. Inglés

cesar@elccc.com.mx

Taxi-gidari jarduten da Alberto petroliotik bizi den Minatitlán hirian. Autotik behatzen ditu egunean zehar taxian sartzen diren bidaiarien gatazkak eta gorabeherak; denborak, pobreziak eta kresalak hondatutako hiria; findegiko sugarrak eta ke beltzak... Alabaina, poesia ere ikusten du, hiriarena, hormigoi pitzatuan hazten diren loreena eta hiritarren arteko elkartasunarena.

Alberto, un taxista en la ciudad petrolera de Minatitlán, observa los conflictos de su ciudad desenvolverse a través de los pasajeros que abordan su taxi durante el día, mira la ciudad deteriorada por el tiempo la pobreza y el salitre, las llamaradas y humos negros de la refinería, pero también la poesía de la ciudad, en las flores que crecen entre el concreto picado y la solidaridad de la gente que habita el lugar.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 23 astelehena, 17:00etan / Lunes 23 de octubre, 17:00



## JAIRAG + MA IGA + (LAZOS ANCESTRALES) TERRITORIOS Y VOCES INDÍGENAS

Nelly Kuiru Castro / Dokumentala
Amazonas, Colombia / 2022 / 30 min
V.O. Castellano / SUBT. Castellano parcial

clacpi.colombia@gmail.com

Oihanak ematen dionetik bizitzera ohituta dago Leticia; hirian, ordea, oso bestelakoak dira gauzak bai berarentzat, bai senitartekoentzat. Alaba (Irene) hirian jaioa eta hazia du. Elkarrekin ekiten diote antzinako euren ezagutzak gordetzeko borrokari, kultura-guneak sortuz eta ehun nahiz diseinu berriak asmatuz. Bidaia bat Amazoniako herri indigenen sinbologian eta ehunetan barrena, goi-mailako oihalen diseinua abiapuntu dela.

Leticia, está acostumbrada a vivir solo de lo que le provee la selva, pero en la ciudad las cosas cambian drásticamente para ella y su familia. Irene, su hija, una joven que nació y creció en la ciudad. Juntas inician una lucha para seguir preservando sus conocimientos ancestrales creando espacios culturales y la innovación de nuevas formas de tejidos y diseños. Un viaje a través de la simbología y los tejidos de los pueblos indígenas del Amazonas plasmada en los diseños de alto tejido.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 21 larunbata, 17:00etan / Sábado 21 de octubre, 17:00



## L'ARGENT, LA LIBERTÉ, UNE HISTOIRE DU FRANC CFA

Katy Lena Ndiaye / Dokumentala
Senegal, Francia, Bélgica, Alemania / 2022 / 104 min
V.O. Francés, inglés / SUBT. Castellano

oualid@tact-production.com

Afrikako inperio kolonialen amaiera-urtea izan zen 1960. Frantziaren mendeko naziorik ez zen geratzen jada mapan, baina bai kolonialismoaren garaian sortutako CFA frankoa. Izen hori darama Saharaz hegoaldeko Frantziaren mendeko izandako herrialde gehienetan oraindik ere zirkulatzen duen diruak. Baina, nola liteke herrialde horiek herentzia harrigarri hori salatu ez izana askatasuna berreskuratu ondoren? Laster erretiratuko dutenez CFA frankoa, aukera egokia iruditu zaigu XIX. mendean hasi eta egundaino iraun duen diru horren historiaz jarduteko.

Afrikaldiak gaztelaniaz azpititulatutako filma.

1960 marcó el final de los imperios coloniales en el continente africano. Francia desapareció del mapa, dejando tras de sí el franco CFA, una creación colonial, que es el nombre de la moneda que aún circula en casi todos sus antiguos territorios al sur del Sáhara. ¿Cómo es posible que esos países, una vez recuperada su libertad, nunca denunciaran este extraño legado? El anuncio del próximo fin del franco CFA nos brinda la oportunidad de ahondar en una historia poco conocida que comenzó en el siglo XIX y llega hasta nuestros días.

Película subtitulada al castellano por Afrikaldia.

**Torrebillela Aretoa. Mungia**
Urriak 21 larunbata, 19:30ean / Sábado 21 de octubre, 21:30

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 24 asteartea, 19:00etan / Martes 24 de octubre, 19:00



## LA ILUSIÓN DE LA ABUNDANCIA

Erika González Ramírez, Matthieu Lietaert / Dokumentala
Bélgica, Colombia, Brasil, Alemania, Perú, Honduras, Ecuador / 2022 / 61 min
V.O. Castellano, portugués, inglés / SUBT. Inglés, castellano parcial

matthieu@notsocrazy.net

Latinoamerikako hiru herrialde desberdinetan bizi dira Bertha, Carolina eta Máxima, baina helburu bera partekatzen dute: konkistatzaile modernoen aurkako borrokaren buruzagi izatea.Munduko erauzketa-enpresarik handienetako batzuei ari zaizkie aurre egiten ingurumenaren aldeko borrokatzaileok. «Garapenagatik» prezio izugarria ordaintzen dutenei buruzko dokumentala ez ezik, munduko hegoaldeko herri guztien ingurumenaren aldeko erresistentzia globalari buruzko istorio bat ere bada filma.

Bertha, Carolina y Máxima viven en tres países diferentes de América Latina, pero comparten un objetivo común: están liderando la lucha actual contra los conquistadores modernos. Estas defensoras ambientales se enfrentan a algunas de las empresas extractivistas más grandes del mundo. No es solo un documental sobre quienes pagan el alto precio del "desarrollo", es sobre todo una historia sobre la globalización de la resistencia ambiental de todos los pueblos del Sur Global.

**Torrebillela Aretoa. Mungia**
Urriak 21 larunbata, 21:30ean / Sábado 21 de octubre, 21:30



## LA VIDA ENTRE DOS NOCHES

Antonio Cuesta / Fikzioa
España / 2022 / 24 min
V.O. Castellano / SUBT. Inglés

lineupshorts@gmail.com

Aita-semeak dira Pepe eta Jesús. Udako goiz hartan, azoka txiki batera joan behar du lanera Pepek, baina Jesús zaindu behar duenak deitu dio, eta ezin dela joan jakinarazi. Garuneko paralisia du Jesúsek.

Pepe y Jesús son padre e hijo. Esa mañana de verano, Pepe tiene que trabajar en un mercadillo, pero la persona encargada de cuidar a Jesús, que tiene parálisis cerebral, llama y dice que no podrá ir.

**Torrebillela Aretoa. Mungia**
Urriak 22 igandea, 19:30ean / Domingo 22 de octubre, 19:30

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 22 igandea, 21:30ean / Domingo 22 de octubre, 21:30

**Emanaldiak institutoetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro



## MARCHER SUR L'EAU

Aïssa Maïga / Dokumentala
Francia, Bélgica, Níger / 2021 / 90 min
V.O. Francés, wolof / SUBT. Castellano

margot.lepeltier@institutfrancais.es

Ura nola eskuratu asmatu nahian dihardute berotze globala pairatzen duen Tatiste herrian, Nigerreko iparraldean. Uraren bila joaten dira, egunero, hamalau urteko Houlaye mutikoa eta beste asko, eta kilometro asko egin behar izaten dituzte; izan ere, ezinbestekoa du ura haien herriak. Eguneroko eginkizun hori dela eta, besteak beste ez daukate eskolara joaterik. Bestalde, urik ezak herritik alde egitera ere bultzatzen du jende heldua, urtero, mugaz haraindi bilatzeko bizirik irauteko behar dituzten baliabideak. Kontua da milaka kilometro karratuko lurpeko laku bat dagoela inguru horretan. Putzu bat behar dute, besterik ez, herriko plazara ura eramateko eta biztanle guztiek bizimodu hobea izateko.

En el norte de Níger, el pueblo de Tatiste, víctima del calentamiento global, lucha por tener acceso al agua. Todos los días, Houlaye, de catorce años, como otros jóvenes, camina kilómetros para buscar agua, esencial para la vida del pueblo. Esta tarea diaria les impide, entre otras cosas, asistir a la escuela. La falta de agua también empuja a los adultos a dejar a sus familias cada año para buscar más allá de las fronteras los recursos necesarios para su supervivencia. Sin embargo, esta región cubre en su subsuelo un lago acuífero de varios miles de kilómetros cuadrados. Todo lo que se necesita es un pozo para llevar el agua codiciada al centro del pueblo y ofrecer a toda la población una vida mejor.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 25 asteazkena, 19:00etan / Miércoles 25 de octubre, 19:00



## OTORVANNIE

Vladimir Krivov / Dokumentala
Rusia / 2022 / 64 min
V.O. Ruso / SUBT. Castellano

natalia@eastwood.agency

Chukchi etniako gizon baten eta etniakide guztien bakarrizketa dugu *Los desprendidos*. Gizon horren eta bere aberriaren gaineko historia dugu, eta chukchi etniako jendea bere sustraietatik urruntzen duen orori buruzkoa. Gure geroaren balizko proiekzioa da filma; izan ere, zibilizazioaren bedeinkazioak onartzean, geure burua galzorian jartzeko arriskua jasaten dugu. Ba ote dago ekaitz horretatik irteteko modurik? Badirudi chukchiek badakitela erantzuna.

"Los Desprendidos" es un monólogo de un hombre chukchi y de toda la etnia al mismo tiempo. Es una historia de su vida, de la Madre Patria, y también de las cosas que hacen que los chukchi se separen de sus raíces. Esta película es una posible proyección de nuestro futuro, ya que, al elegir las bendiciones de la civilización, corremos el riesgo de perdernos a nosotras mismos. ¿Hay alguna forma de salir de la "ventisca"? Parece que los chukchi conocen la respuesta...

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 21 larunbata, 17:00etan / Sábado 21 de octubre, 17:00



## RISE UP

Marco Heinig, Steffen Maurer, Luise Burchard, Luca Vogel / Dokumentala
Chile, Sudáfrica, Estados Unidos, Alemania, Kurdistán / 2022 / 89 min
V.O. Inglés, alemán, castellano / SUBT. Castellano parcial

steffen.maurer@riseup-film.de

Heroi politiko apartak diren bost emakumeren eskutik, gaur egungo gorabehera ekologiko eta ekonomiko izugarriei eta joera autoritarioei nola aurre egin aztertzen du *Rise up*ek.

Junto a cinco extraordinarias heroínas políticas, "Rise up" busca respuestas a los devastadores acontecimientos ecológicos, económicos y autoritarios de nuestro tiempo.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 20 ostirala, 21:30ean / Viernes 20 de octubre, 21:30



## SOLPOR

Susana Alba / Fikzioa
España / 2022 / 16 min
V.O. Gallego / SUBT. Castellano

albalonsosusana@gmail.com

Ibilgailuan bizi da adin ertaineko gizonezko bat, lanik gabe geratu eta familiatik urrundu ondoren. Egoera horretan bolada bat eman ondoren, elikagaiak erosteko dirurik gabe geratzen hasi da. Ibilgailua, berriz, matxuratu egin da, eta ezin du inolaz ere martxan jarri. Gorabehera horiek guztiak jasan ondoren, etxera itzultzea pentsatu du, eta bere bizitzaren jabe izatea berriro.

Un hombre de mediana edad vive en su vehículo tras quedarse sin trabajo y alejarse de su familia. Después de un tiempo viviendo en esa situación, el mismo hombre, empieza a quedarse sin recursos para poder comprar los alimentos necesarios para vivir. Además, el vehículo comienza a dar fallo y no arranca por más que lo intenta. Tras estos incidentes, comienza a replantearse el volver a casa y tomar de esta forma las riendas de su vida.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 22 igandea, 17:00etan / Domingo 22 de octubre, 17:00

**Emanaldiak institutoetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro



## SOMLENG REATREY

Chanrado Sok, Kongkea Vann / Fikzioa
Camboya / 2021 / 20 min
V.O. Khmer (cambodiano) / SUBT. Castellano

lightsonteam@gmail.com

Fideoak saltzen dituzte Vibol-ek eta anaia Kea-k, Phnom Penheko kaleetan, gurdi motordun baten laguntzaz. Sarritan jasotzen dituzte gangsterren eta lapurren mehatxuak, bezero bakarrak haiek dituzten arren. Hiria handitzen ari da, eta anaia biak hasiak dira bestelako etorkizun bat hausnartzen, diru-sarrerak ez baitira batere egonkorrak.

Vibol y su hermano Kea venden fideos en un carro motorizado todas las noches por las calles de Phnom Penh. A menudo se enfrentan a molestas amenazas de gángsters y ladrones, aunque estas mismas personas sean sus únicos clientes. Mientras la ciudad crece a su alrededor, se plantean sus inestables ingresos e imaginan un futuro diferente.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 24 asteartea, 17:00etan / Martes 24 de octubre, 17:00

## LEHIAKETARAKO FILMAK: GENERO EKITATEA
## PELÍCULAS A CONCURSO: EQUIDAD DE GÉNERO



**36**

Ana Lambarri Tellaeche / Fikzioa
España / 2021 / 21 min
V.O. Castellano / SUBT. Inglés

contact@theotherfilmproduction.com

Gonbidatuen zain daude Sara eta David, etxean; izan ere, bazkaltzera datoz Daviden nagusi berriak. Sara otordua prestatzen ari dela, huskeria batek haserre jarri du David, eta emaztea kolpekatu eta umiliatu du. Ez da lehenbiziko aldia horrelakorik egiten duena. Indarkeria jasan ondoren, ekintza sozialean hartu behar du parte Sarak. Baina proba gogorra gainditu beharko du errealitatea ezkutatzeko senar-emazteek eraikitako fatxadak.

Sara y David esperan visita en casa, los nuevos jefes de David vienen a comer. Sara se prepara, un detalle insignificante provoca que David se enfade y la maltrate, la golpea y humilla, no es la primera vez. Tras la violencia, Sara tiene que enfrentarse al acto social, la fachada que ambos han creado para ocultar la realidad se enfrenta a una dura prueba.

**Zalla Zine-Antzokia**
Goizeko saioa ikastetxeentzat / Sesión matinal para centros educativos

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 24 asteartea, 21:30ean / Martes 24 de octubre, 21:30

**Emanaldiak institutoetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro



## 1/4 ANTE MERIDIEM

Alex Noppel / Fikzioa
México, Alemania / 2022 / 18 min
V.O. Castellano / SUBT. Inglés

alexnoppel@gmail.com

Hamahiru urteko neska bat —Mabel— hamar urteko mutil batenganako (Ambroz) erakarpen fisikoa sentitzen hasi da. Ambrozen amari, ordea, ez zaio gustatzen semeak Mabelekin jolastea, «mutila baino handiagoa baita». Ezkutuan jolasten dira, leku debekatu batean. Mutilak ez daki, baina, leku horretan bertan sexu-esplotazioa ari dela pairatzen 17 urteko neska bat (Cristina). Tolesgabea izaki, Ambroz ez da gauza Mabelen misterioak argitzeko; Cristinak, berriz, libre zen garaia gogoratzen du, eta basoaren bihotzean aurkitu du bakea.

Mabel (13 años) comienza a experimentar una atracción física hacia Ambroz (10 años), a quien su madre no le gusta que juegue con ella porque "es más grande que él". El juego entre ellos se da a escondidas en un lugar prohibido, él ignora que bajo ese mismo techo Cristina (17 años) está siendo explotada sexualmente. La inocencia de Ambroz le impide descifrar los misterios que esconde Mabel, mientras que Cristina solo recordará su libertad y encontrará la paz en la profundidad del bosque.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 24 asteartea, 17:00etan / Martes 24 de octubre, 17:00



## ALEGRE Y OLÉ

Clara Santaolaya / Fikzioa
España / 2023 / 20 min
V.O. Castellano / SUBT. Inglés

info@selectedfilms.com

Osasun mentaleko zentro batean bizi dira Lena eta Carmen. Adin-aldea handia den arren, oso harreman berezia dute elkarrekin: bata bestearen ispilu dira, nolabait. Enpatia eta maitasuna direla medio —eta aurreiritziak alde batera utzita— beldurrak eta errudun-usteak gainditzea lortu dute, eta lehen urratsa egitea sendatzeko bidean.

Lena y Carmen están ingresadas en un centro de salud mental. A pesar de su diferencia de edad, estas dos mujeres desarrollarán una relación muy especial y, en cierta medida, especular. Así, a través de la empatía, el cariño y la falta de juicios, ambas lograrán superar sus propias culpas y miedos y plantar la primera semilla de su recuperación.

**Arriola Antzokia. Elorrio**
Urriak 7 larunbata, 20:00etan / Sábado 7 de octubre, 20:00

**Torrebillela Aretoa. Mungia**
Urriak 20 ostirala, 19:30ean / Viernes 20 de octubre, 19:30

**Emanaldiak institutoetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro



## BRÖDRASKAPET

Bo Pärletun / Fikzioa
Suecia / 2023 / 15 min
V.O. Sueco / SUBT. Castellano

info@distributionwithglasses.com

Lehenbiziko film luzea egiteko dirua jaso berri du Alexek. Ekoizpen-hasierako festan, filmeko aktore nagusiaren sexu-erasoa jasan zuela jakinarazi du gidoilariak.

Alex acaba de recibir fondos para su primer largometraje. Durante la fiesta de inicio de producción, la guionista revela que el actor principal de la película la agredió sexualmente.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 24 asteartea, 17:00etan / Martes 24 de octubre, 17:00



## CARMEN, SIN MIEDO A LA LIBERTAD

Irene Baqué / Dokumentala
España / 2022 / 30 min
V.O. Castellano / SUBT. Inglés

festhome@agenciafreak.com

Arrazismo eta matxismo sistemikoaren aurka borrokatzen den emakume ijito feministen lehenbiziko elkartearen buru da Carmen, Murtziako Cartagena hiriko «Las 600» auzokoa. Estereotipoak alde batera utzi eta gauzak aldatzeko komunitateak duen itxaropenaren ikur bihurtu da. Presio horri aurre egin, eta bere helburuak lortzen saiatzen da. Nortasun eta ausardia handikoa izaki, borrokan jarraitzeko erresistentzia, batasuna eta indarra bereganatu ditu.

Desde el barrio de «Las 600», en Cartagena, Murcia, Carmen lidera la primera asociación de mujeres gitanas feministas para luchar contra el racismo y el machismo sistémicos. Tras romper con todos los estereotipos, Carmen lidiará con la presión que representa haberse convertido en la esperanza de su comunidad para cambiar las cosas, mientras sigue adelante con sus objetivos. Su fuerte personalidad, y su determinación, serán el motor para crear un sentimiento de resistencia, unión y fuerza para seguir luchando.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 22 igandea, 21:30ean / Domingo 22 de octubre, 21:30



## CHAO DE FÁBRICA / UNA HISTORIA DE OBRERAS

Nina Kopko / Fikzioa
Brasil / 2021 / 24 min
V.O. Portugués / SUBT. Castellano

joao@boulevardfilmes.com.br

São Bernardo do Campo, Brasil, 1979. Bazkalorduan, itzali egin dira instalazio metalurgiko bateko makinak. Lau emakume langile bazkaltzen ari dira, komunean. Barre eta ezbai artean, nork bere sekretuari eusten dio.

São Bernardo do Campo, Brasil, 1979. Las máquinas se apagan a la hora del almuerzo dentro de una planta metalúrgica. Cuatro obreras comen dentro del baño de mujeres. Entre risas y riñas, cada una guarda su secreto.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 23 astelehena, 21:30etan / Lunes 23 de octubre, 21:30




## DERECHOS HUMANOS DE LAS HUMANAS

Colectiva Lemow, Curruscu y Entreamigos- Lagun Artean / Dokumentala
Guatemala, Euskal Herria / 2022 / 52 min
V.O. Castellano, euskera / SUBT. Castellano parcial, euskera parcial

comunicación@lagungt.org

Ahotsa altxatzea erabaki dute Euskal Herriko zenbait emakumek, zer dioten entzun dezagun. Lurralde guztietako emakumeen batasunak duen garrantzia azpimarratzen dute protagonistek, patriarkatuaren eta matxismoaren aurka elkarrekin borrokatzearenak. Topagune bat aurkitu nahi dute, emakumeen giza eskubideen alde borrokatzeko. Kazetaritza, politika, arte eta Guatemalako zein Euskal Herriko emakumeen eta erakundeen ahalduntzea jorratzen ditu proiektuak; hau da, Guatemalako eta Euskal Herriko emakumeen erakunde zein taldeen arteko elkarlana.

Euskal Herria para alzar la voz, que se puedan escuchar y que las escuchemos. Las protagonistas resaltan el valor de la unión de mujeres de territorios diferentes, de una lucha común contra el patriarcado y el machismo. Encontrar ese punto en común, para luchar por los derechos humanos de las humanas. Un proyecto que aborda reflexiones y vivencias sobre el periodismo, la política, el arte y el acuerpamiento de mujeres y organizaciones en Guatemala y Euskal Herria. Trabajo en común entre organizaciones y colectivos de mujeres de Guatemala y Euskal Herria.

**Muxikebarri – Getxoko Arte, Kultura eta Kongresuen Zentroa**
**Muxikebarri – Centro de Arte, Cultura y Congresos de Getxo**
Urriak 20 ostirala, 19:00etan / Viernes 20 de octubre, 19:00



## EL PAÍS DE LAS MUJERES DEL INFRAMUNDO

Rekawt Hama Tofiq / Dokumentala
Kurdistan, Iraq / 2023 / 16 min
V.O. Kurdo. SUBT. Castellano

retawfilm@gmail.com

Hamahiru urtetik gora daramatza lanean gizon batek emakume erailen eta umezurtzen hilerrian. Ehorzlea eta lorezaina da, aldi berean, hilerri berezi batean: hara eramaten dituzte erailtzen dituzten emakume umezurtzen gorpuak, eta han lurperatzen.

Un hombre lleva más de 13 años trabajando en el cementerio de mujeres asesinadas y huérfanas. Es a la vez sepulturero y jardinero en un cementerio especial que se dedica a los cuerpos de mujeres huérfanas que son asesinadas y enterradas allí.

**Arriola Antzokia. Elorrio**
Urriak 9 astelehena, 20:00etan / Lunes 9 de octubre, 20:00

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 22 igandea, 21:30ean / Domingo 22 de octubre, 21:30



## IMELDA NO ESTÁ SOLA

Paula Heredia / Dokumentala
El Salvador / 2023 / 31 min
V.O. Castellano / SUBT. Castellano

heredia@herediapictures.com

El Salvadorreko sistema legalean harrapaturik dagoen nerabe baten istorioa dugu *Imelda no está sola*. Larrialdi obstetriko bat izan du Imeldak, eta ospitaleratu egin dute. Abortatu izana egotzi diote, okerki, eta atxilotu. Imeldaren askatasunaren aldeko borroka kontatzen digu filmak, bai berea bai haren aldeko emakumeena, denek baitakite aitaordeak bortxatuta geratu zela haurdun. Emakumeen eskubideak gero eta urriagoak diren lurraldeetan zer ari den gertatzen azaltzen digu.

*Imelda No Está Sola*, es la historia de una adolescente atrapada en el sistema legal de El Salvador. Después de tener una emergencia obstétrica, Imelda es llevada al hospital, ahí, Imelda es erróneamente acusada de tener un aborto y arrestada. Esta película cuenta la historia de la lucha de Imelda por su libertad y de las mujeres que la defienden sabiendo que su fecundación responde a la violación de su padrastro. Una historia con moraleja para los países donde los derechos de las mujeres se están deteriorando.

**Azkuna Zentroa Alhóndiga Bilbao**
Urriak 19 osteguna, 19:30ean / Jueves 19 de octubre, 19:30

**Zalla Zine-Antzokia**
Urriak 19 osteguna 19:00etan / Jueves 19 de octubre, 19:00

**Torrebillela Aretoa. Mungia**
Urriak 20 ostirala, 19:30ean / Viernes 20 de octubre, 19:30

**Cines Florida Zinemak. Vitoria-Gasteiz**
Urriak 23 astelehena, 20:00etan / Lunes 23 de octubre, 20:00



## INSUMISAS

Laura Dauden, Miguel Ángel Herrera / Dokumentala
España, Sáhara Occidental, Suiza / 2023 / 26 min
V.O. Castellano, otros / SUBT. Castellano parcial, euskera parcial

miguel.herrera@forward-films.com

Mendebaldeko Saharan, sutsuki borrokatu dira beti emakumeak Marokoko erresumaren kolonialismoaren eta arpilatzearen aurka. Marokoko armadaren eta Saharako askapen nazionaleko mugimenduaren (Fronte Polisarioaren) arteko su-etena hautsi ondoren, areagotu egin zen errepresioa; hala eta guztiz ere, zenbait emakumek batzarra egin zuten 2020ko azaroan: 1975etik gaur egunera arte amonek, amek, ahizpek, alabek eta eurek jasan dituzten indarkeria-mota guztiak gogoratu zituzten han.

Las mujeres siempre han estado en la primera línea de la resistencia saharaui contra el colonialismo y el expolio de su territorio, el Sáhara Occidental, por parte del reino de Marruecos. A pesar de la represión, intensificada por la ruptura del alto al fuego entre las fuerzas marroquíes y el movimiento saharaui de liberación nacional, el Frente Polisario, en noviembre de 2020, activistas que viven bajo ocupación se reunieron para documentar las más diversas violencias cometidas contra ellas, sus hijas, madres, hermanas y abuelas desde 1975 hasta la actualidad.

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 20 ostirala, 17:00etan / Viernes 20 de octubre, 17:00

**Cines Florida Zinemak. Vitoria-Gasteiz**
Urriak 25 asteazkena, 20:00etan / Miércoles 25 de octubre, 20:00



## LA CAJERA

Amada Santos Relaño / Fikzioa
España / 2022 / 14 min
V.O. Castellano / SUBT. Inglés

fila5producciones@gmail.com

Kutxazain aritzen da Maca supermerkatu batean. Egun batean, apalategietan salgaiak jartzen ari dela, gazte bat atzetik hurbildu zaio eta ipurdia igurtzi dio hankartearekin. Mutilari aurre egitea pentsatu du neskak, baina duda-mudan geratu da. Erasoa izan da igurtzia? Salatu egin dezaket? Emakume gehiagori egin ote die gauza bera? Antzekoak jasaten ote dituzte egunero ehunka emakumek mundu osoan?

Maca trabaja como cajera en un supermercado. Un día, mientras repone una de las estanterías, un joven se le acerca por detrás y le 'roza' el trasero con el 'paquete'. La chica amaga con enfrentarse con él, pero le asaltan las dudas. ¿Ha sido una agresión? ¿Puedo denunciarlo? ¿Se lo habrá hecho a más mujeres? ¿No le pasa algo parecido a esto todos los días a cientos de mujeres en todo el mundo?

**Hala Dzipo Musika Eskola. Barakaldo**
Urriak 5 osteguna, 19:30ean / Jueves 5 de octubre, 19:30

**Torrebillela Aretoa. Mungia**
Urriak 22 igandea, 19:30ean / Domingo 22 de octubre, 19:30

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 23 astelehena, 17:00etan / Lunes 23 de octubre, 17:00

**Emanaldiak institutoetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro



## MOTHERTRUCKERS

Paula Romero / Dokumentala
Reino Unido, España / 2022 / 15 min
V.O. Inglés / SUBT. Castellano

fest@inoutdistribution.com

Gutxi hitz egin ohi da emakume kamioilariez, eta hutsune hori betetzea du xede *Mothertruckers* dokumental laburrak. Erresuma Batua garraio- eta erregai-krisi larria pairatzen ari zen Brexit ondorengo garaian dago girotua, eta gizonezkoak nagusi diren lanbide horretan emakume izateak dakartzan gorabeherak aztertzen ditu. Halaber, bi ikuspegi jartzen ditu aurrez aurre: errepidean libre ibiltzearen ideia erromantikoa eta bizibide gogor eta ohiz kanpokoa.

*Mothertruckers* es un cortometraje documental que plantea una mirada diferente a la historia poco representada de las mujeres camioneras. Ambientada después del Brexit y durante la crisis del transporte y del combustible en el Reino Unido, aborda el conflicto de ser mujer en una profesión dominada por hombres. A su vez, explora la idea romántica de encontrar la libertad en la carretera en contraste con el duro estilo de vida y poco convencional.

**Hala Dzipo Musika Eskola. Barakaldo**
Urriak 5 osteguna, 19:30ean / Jueves 5 de octubre, 19:30

**Arriola Antzokia. Elorrio**
Urriak 9 astelehena, 20:00etan / Lunes 9 de octubre, 20:00

**Cines Golem Zinemak. Bilbao**
Urriak 20 ostirala, 17:00etan / Viernes 20 de octubre, 17:00

**Torrebillela Aretoa. Mungia**
Urriak 22 igandea, 19:30ean / Domingo 22 de octubre, 19:30

**Cines Florida Zinemak. Vitoria-Gasteiz**
Urriak 23 astelehena, 20:00etan / Lunes 23 de octubre, 20:00

**Emanaldiak institutoetan / Proyecciones en institutos**
Institutuekin harremanetan jarri / Consultar con el centro



## SI ME QUEREI, IRSE

Sofía Muñoz / Fikzioa
España / 2023 / 9 min
V.O. Castellano / SUBT. Inglés

info@distributionwithglasses.com

Igandero bezala, paella bat ari da prestatzen Juana, familia inguruan duela. Baina senarrak erretiroa hartu duela jakiteak zapuztu egin du ospakizuna.

